

Bilbon, 2001.eko ekainaren 29an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana Martija, diruzaina,
B. Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Eguzkitza,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
F. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin
eta J. M^ª Satrustegi, euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia idazkariorde-
-kudeatzailea.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, bildu da Euskaltzaindia, 2001.eko ekainaren 29an, hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrak eta hogeian eman zaio hasiera batzarrari. Bilduen izenak ezkerreko zutabeen jasorik ageri dira. Ezin etorria adierazi dute Xabier Diharcek eta I. Sarasolak.

Euskaltzainburuaren hitzak

Bilkurari hasiera ematean, euskaltzainburuak gertatu berri den Miren Azkarateren amaren heriotza gogoratu du. Euskaltzain guztien izenean dolumina agertu dio Azkarate andreari.

Bestalde, J.A. Pascual irakasle ezaguna Espainiako Hizkuntza Akademiarako hautatua izan dela jakinarazi du. Euskaltzaindiaren izenean zorion agurra igorriko zaio.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Oihartzabal jaunaren eskariz, eskuarteko gaietan “gramatikak” dioen lekuan “graketak” jarriko da.

Peillen jaunaren ezin etorria adieraztea falta da, bestalde.

Zuzenketa hauekin, ontzat eman da agiria.

Hizkuntza arauak

Gramatika: “Komuntadura aposizioetan” 109. araua berrikustea.

Miren Azkaratek agindutako txostena ekarri du *–garren* morfemaz osatutako izen propioei buruzko informazioarekin. Joera nagusia [*n-garren*] osagaia izenaren aurretik ematea da (*hamahirugarren aita santua* modukoak). Izen propioekin alderantziz: *Leon hamahirugarrena*. Baina azken hauen antzekoak aposizioan doazenean, ihes egiten zaie testuetan, gehienetan [*n-garren-a* + izen sintagma] tankerako aposizioei (*Leon hamahirugarrena aita santua* modukoei, alegia). Gauzak horrela, arauaren testu berritua ekarri du Azkarate andreak. Onartuz gero, berriro banatuko litzazieke harpidedunei testu zaharraren ordez.

X. Kintanak dio egiten den aldaketarekin arazoa saihestu egiten dela, konpondu barik. Zergatik ez da azaltzen “garren” daramatenekin zer egin behar den? P. Goenagak, arrazoa eman ondoren, zer jarriko lukeen galdetu dio Kintanari. Eztabaida labur bat sortu da eta ondorioz, testuari aldaketa txiki bat ezarri zaio, ez araua biltzen den partean, aurreko azalpenean baizik. Hain zuzen, 2.1 atalean, azalduko da zein izan den ohiko joera (-*garren*-en mugatzailea izen bereziaren ataltzat ez hartzekoa) eta zein gaurkoa (*Karlos II.a errege suediarra* modukoek erakusten dutena).

Adibideetan, berriz, Andres Iñigoren eskariz, *lizentziadun* hitza sartuko da *lizentziatura*-ren ordeztu.

Ohar hauekin ontzat eman da 109. arauaren bertsio berria.

Onomastika: Geografia izenen inguruko eztabaida: lautada, ordoki eta abar.

Aurreko bilkuran erabakitakoaren ildotik, *EEBS* datu basean *lautada* hitzak zer erabilera izan duen erakusten duen txostena ekarri da. Hegoaldean asko erabili da. Miren Azkaratek, hala ere, prozedura problema bat ikusten du: dagoeneko *Hiztegi Batuan* erabakiak direnak ez lirerateke aldatu behar. Hori litzateke *lautada* hitza berreskuratzeko legokeen arazoa. Luze eztabaidatu ondoren, bozkatzea erabaki da. Bi aukera eman dira: a) *lautada* “Arabako lautada” eta b) *lautada* *Geogr.* h. *lau*, *zabaldi*. Lehenbiziko aukeraren alde 13 boto izan dira; bigarrenaren alde, 8. Beraz, hori onartu da *lautada*-ren erabilera berezi gisa eta horrela jasoa geratuko da *Hiztegi Batuan*.

Hiztegi Batua: abonagarri-agertze hitz zerrenda.

Andres Iñigoren oharrak hartu dira lehenbizi aztergai.

Abudo hitzari tokia egiteko eskatzen du ohargileak, *Naf.* marka ezarrita. Ez da onartu, aldaera soil den aldetik. Sarrera emango da, hala ere: *abudo** e. *agudo*.

Adrendu sarrerari “g. er.” marka kentzea onartu da. Honen parean, *adrendua hartu* “era hartu” ere emango da. *Makina berriari adrendua hartu dio* moduko adibide bat eskainiko da.

Ageriki hitzarentzat “ageri” balioa gorde nahi du Iñigo jaunak. Baina *ageriki* eta *ageri* ez dira sinonimoak. Izatekotan *ageri*-tik eratorritako zerbait da *ageriki*. Oihartzabalek adibide bat ematearekin aski dela dio. Eztabaida labur baten ondoren, azpizarra gisa jasotzen diren *ageririk* eta *ageriz* kentzea erabaki da, beheago sarrera modura ere ematen baitira. Beste aldaketarik ez gehiketarik ez da egingo.

H. Knörr jaunaren oharrak aztertzeari ekin dio ondoren batzarrak.

Aboro h. **haboro** ematea onartu da.

Abundantzia hitzari toki egiteko eskaria ez da onartu. Baina *abondant* eta *abondantzia* sartuko dira “Zah.” marka erantsirik

Accesit eta *adarbakoitz* hitzei buruzkoak jadanik erabakirik utzi zituen Euskaltzaindiak orain hurrengo bileran.

Adeitasun sarreran, adibide gisa, *adeitasunez* eranstea onartu da.

Adi sarreraren erregimena emateari ongi iritzi dio batzarrak: *zeri, nora* nahiz *zeren* eskatzen duela esango da.

Adia: “ahuenta, deitorea” gehituko zaio adiera gisa eta J. B. Agirreraren adibide hau erantsiko: *emen aitortu nai ez dezuna, an aitortuko dezu adiaz, eta negarrez.*

Adiagile-ren kasuan ez da hobespen markarik emango. Adiera emango da soil soilik: “erostaria”.

Adibide-ren azpisarrera gisa ematen den *adibidez*-ekin, etsenplu bat emango da, koma artean behar duela erakutsiz: *Zuk, adibidez, ez duzu hitza bete.*

Adietan eman Bizkaiko forma gisa jasotzeko eskatzen du ohargileak. Azkarate andreari hobeki iruditzen zaio aipatu gabe uztea. Botoetara jo da. Aipatzearen aldeko agertu dira hamabi euskaltzain “aditzera eman” esanahia duela adieraziz.

Adigarri hitzarendako Knörr jaunak adibide bat eskaintzen du. Hala ere, Azkarateren proposamenez, beste bat onartu da, argiagoa delakoan: *ipuinaren ondorio adigarriak.*

Adin izan-i Ipar eta *Naf.* markak ezartzea onartu da.

Adinean sartu esapideari ere leku egitea onartu da.

Adindun sarrerarako ohargileak eskaini duen adibidea ez da onartu.

Aditz trinko-ren parean *aditz konposatu* sartzeko arazoak daude ez baitago argi zer datekeen. Horrenbestez, ez da onartu Knörren eskaria.

Adjudikatu aditzaren nazioartekotasunaz galde egiten du ohargileak. Gutxienekoa betekoa lukeela erantzun zaio. Dena dela, lehen itzulian onartua dago.

Administrazio hitza dela eta, letra larriz noiz behar lukeen argitzeko eskatzen du ohargileak eta noiz letra xehez. Dagoenetan uztea erabaki da.

Adoratu-ren sinonimo gisa *gurtu* ematea ez da onartu.

Aeronautika hitzak letra larriz behar ote duen galde egiten du ohargileak. Horretaz ezer ez esatea erabaki da.

Agenda, agente, agentzia ... hitzak g-rekin ematea onartu da.

Agerian utzi gehitzeko eskaria ez da onartu.

Ohar hauen eztabaida amaitzean, euskaltzainen oharrak bi bider ematen direla ikusirik, bata ohargilearena eta bestea Miren Azkarateren oharrak gehitua dituen, papearak ez errepikatzeke proposamena egin du euskaltzainburuak, alferrik delakoan. Hala onartu da aurrerantzera.

Ondoren Patxi Zabaletak “Nekazalko hitzak” izenburupean egindako oharretatik lehenbizikoak aztertu dira, A letrari dagozkionak hain zuzen.

Abaroleku ez da sartuko. *Abaro* sartua denez, aski gardena gertatzen baita.

Abi, abiondo ere ez dira sartuko. *Ahabia* jadanik onartua da.

Adaba, adabatu, adabaki... *Adabatu* eta *adabaki* dagoeneko arautuak dira. *Adaba*-ren lekukotasunik, berriz, ez da.

Adiurri jasotzea ez da onartu: *aiurri* arautua dago eta oraingo zerrendan *adiurri* jasoa denez, horrek aski argitasun emango duela uste izan da..

Adobe, berriz, jadanik aztertua dago.

Andres Urrutiaren oharrak aztertzeari ekin diote ondoren euskaltzainek.

Abordaje ez sartzea onartu zen bere garaian.

Abortu-ren azpisarrera gisa *abortatzeko eskubide* sartzea ez da ontzat eman: *sintagma* den neurrian lekuz kanpo dago hiztegian. *Abortu eragile* sartzea ere nahi luke-
te batzuek. Ez sartzea onartu da.

Absentzia-adierazpen azpisarrera onartu ala ez geroko uztea erabaki da. Lege-ad-
ministrazio-lantaldeak gainerako hitzak lantzen dituen beharrezkotzat jotzen duen
ikusiko da orduan.

Absolutibo "Hizkl." markarekin ematea onartu da.

Absorbitu eta *absorbatu* biak zerrendatik kentzea proposatu da eta onartu (15
boto).

Abzesu/abszesu bikotearen aurrean Azkarateren oharrari bidezko iritzi diote eus-
kaltzainek eta *abzesu* agertuko da zerrendan.

Aburu sarreran, adibide gisa, *zenbat buru hainbat aburu* ematea onartu da. Gero,
azpisarrera gisa, *-ren aburuz* ematea ere onartu da. *Aburu bateko* eta *aburu bereko* adi-
bide gisa emango dira.

Aburukide sartzea onartu da.

Abusu dela eta, *eskubide-abusu* azpisarrera gisa ematea onartu da *eskubide*-ren
azpian. *Zuz.* markarekin joango da.

Adakaitz hitza sartzeko eskaera egin du ohargileak. Gauzak ez daude argi, ordea,
hitz horren formaz, *arakaitz*, *aragaitz*, *adakaitz*, ... zalantzak baitira. Eztabaidaren ondo-
ren onartu dena Hiztegi Batuko batzordeari bere proposamena egiteko eskatzea izan da.

Adarme hitza zerrendatik erori egin da, bozkatu ondoren, 11 boto izan baitira ken-
tzearen aldeko. Atxikitzearen alde sei euskaltzain agertu dira.

Adin hitzaren ingurukoak jadanik eztabaidatutzat jo dira.

Ordu bietan eten egin da batzarra.

Bazkalondoan, lau eta erdietan ekin diote lanari euskaltzainek. Andres Urrutia jau-
naren oharren azterketarekin jarraitu dute.

Adiskidetze sarreran, ohargilearen iradokizuna onartzuz, adibide gisa, *adiskidetze-
ko ekitaldia* sartzea onartu da.

Aditz sarreran *aditz sintagma* azpisarrera ematea oraingoz ez da onartu. Aurrera-
go, dagokion lantaldetik proposamena badator, ikusiko da.

Administrazio-ri bi azpisarrera gehituko zaizkio: *administrazio zuzenbide* eta *ad-
ministrazio kontseilu*.

Adur-en azpisarrera gisa nahi lituzke ohargileak *adur gaiztoko*, *adur oneko* eta abar. Hala ere, horrelakoei besteetan ere ez zaie eman tratu hori. Emankorrek direnez, kanpoan utzi beharrekoak dira. Horrelakoak ez dira sartuko, salbuespenen bat ez bada.

Bestalde, *adur-joko*-ri dagokionez, eta eztabaidaren ondoren, eguneroko hiztegiak lan egingo duen taldearen esku uztea proposatu du azkenean Urrutiak. Hala utzi da.

Afaritako sartzea eskatzen du Urrutiak. Miren Azkarateren kezka, ordea, da *afaritako* ala *afaritarako* behar lukeen. Ohargileak berak azkenen etsi egin du eta ez da sartuko.

Aforatu hitzari Zuzenbidean behintzat ez litzaoke lekurik egin behar. *Forudun* badago, askoz egokiago da. Hitz hori Kimika eta Fisika munduan beharrezko ote den aurrerago ikusi beharko da.

Afusilatu-ri buruzko oharra onartu da eta honela sartuko da: *afusilatu** e. **fusilatu**

Euskaltzainen oharren azterketaren ondoren, Azkarate andreak zerrendan bertan eztabaidagaitzat utzitako oharrei ekitea proposatu du.

Abonagarri sarrera ezabatzea proposatzen du Azkaratek. *Abonatu** e. **ordaindu** adieran oinarritua legoke eta hau adieraztea aski litzateke.

Abonatu-ren 1. sarreran, hirugarren adieran, “h. **harpidetza egin**” jasoko da. Bigarren sarreran, berriz, **abonatu** 2 iz. h. **harpidedun** emango da. 3. sarrera, berriz, kontabilitatean erabilia nonbait, kentzea erabaki da. Gero ikusiko da lantaldetik horren aldeko eskaririk datorren.

Eta hemen eten dira hiztegi kontuak. Hurrengo bilerarako utzi dira “F” ikurra duten guztiak aztertzeko lana..

Ahuakat-aitzitik zerrenda banatu zaie karpetetan euskaltzainei. Lana oso atzerata doala esan du Miren Azkaratek. Horrela hamabi urte beharko dituela Euskaltzaindiak esku artean duen lana amaitzeko.

Geografi hitzen zerrenda

Lekeitioko bilkuran onartutakoren ondorioz, Madrileko Instituto Geográfico Nacional delakotik egin eskariari Euskaltzaindiak emandako erantzunaren berrazterketa egin du Onomastika batzordeak. Batzordeburuak aurkeztu du dokumentua. Eskatzen du ez argitaratzea gauzak ongi finkatu arte. Eztabaida sortu da erabakia argitaratzeaz, zeren, araua ez izanik ere, batzarretan onartutakoen berri eman behar baita agirietan. Horrenbestez, erabakiaren azken bertsioa jaso egin behar dela onartu da, duen maila aitortuz.

Horrenbestez, oharrak hilaren 10erako igortzea eskatu da. Ohar horiek eta Onomastika batzordeak prestatutakoak eztabaidatu eta onartu ondoren, lehen onartutako dokumentuari erantsiko zaizkio eta hori izango da argitaratuko dena *Euskera*-n.

Eskuartekoak

Nafarroako gobernua eta Hizkuntz Atlasa

Euskaltzainburuak, *Hizkuntz Atlasaren* izenburua dela eta, Nafarroako gobernutik Euskaltzaindiari helarazi zaizkion eskarien aurkezpena egin die euskaltzainei. Arazoaren xehetasunak eman dizkie eta eskuartean duten dokumentazioaren historia azaldu.

Uztailaren bosterako jarri du hitzordua Nafarroako Unibertsitate eta Hizkuntza Politikako Zuzendari Nagusi den Pegenaute jaunak. Euskaltzaindiaren izenean, zuzendaritzak Goenaga, Urrutia eta Iñigo jaunak joatea proposatu du.

Arazoari eman lekizkiokeen irtenbideez hitz egin dute euskaltzainek luzaro. Argi geratu da hatsarre kontu bat badela eta hatsarreetan, printzipioetan, Euskaltzaindiak ez duela amore eman behar. Gehienez ere, izenburuaren gehigarri gisa, "Ohiko euskararen eremuko 145 herritan (Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Pirinio Atlantikoetan) egindako inkestak" eransteke prest egongo litzateke Euskaltzaindia.

Datorren urteko aurrekontuak prestatzen

J. A. Arana diruzainak gogorarazi du uztailean aurkeztu behar direla aurrekontuak. Bost edo sei batzordek baizik ez dute eman eskatu zaien txotena, aurrekontuak egiteko oinarritzat hartzen dena. Besteei ere bidal dezatela eskatzen die.

Mailegua

Nafarroako gobernuak 2000ko protokoloa sinatzen ez duen bitartean arazoak bide daude beste herri-aginteez ere beren partea ordaintzeko. Madrilera dirulaguntza ere abuztu arte ez omen da jasoko. Gauzak horrela, 50 milioiko mailegu bat eskatzea erabaki duela Zuzendaritzak.

Iparraldeko diru laguntzak

Euskaltzainburuaren arabera, 850.000 libera izango ditu Euskaltzaindiak Iparraldetik aurtan. Zati bat toponimia azterketak bultzatzeko izatea nahi dute hango agintariek. Gainerakoa Euskaltzaindiaren bestelako lanetarako izango omen da. Euskaltzainburuak adierazi du asteartean bilera bat dela ordezkarietan. Hitzarmen berezi horretako kideak bilduko dira eta orduan ikusiko da zer egiten den eta zer galde egiten dioten Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak berea eman behar du, baditu lan batzuk eta horiei jarraitu behar die.

Charrittonek bere desadostasuna erakutsi du diru banaketa hori dela eta. Galde egin du ea nork erabaki duen diru kopuru hori onomastika lanetan eralgitzea. Euskaltzainburuak esan dio gaur bertan jakin izan duela horren berri.

Hitzarmenak

Bi hitzarmen aztertu ditu zuzendaritzak: bata Deustuko Unibertsitatearekikoa (testua erdaraz dago oraindik) eta IKAS-ekin beste bat. Euskaltzainburuak dio orotara biok onartzen dituela Zuzendaritzak.

IKASeko hitzarmen hori dela eta, Charritton jaunak zenbait arazo izan daitezkeela aipatu du.

Azken ordukoak

H. Knörr jaunak euskaltzainburuari egindako gutuna irakurri du, bezperan Zuzendaritzaren bilkurara eramana. Gutun hori euskaltzainek behar den argibidea izan dezaten idatzi duela esan du.

Knörr jauna EITBko kontseiluko kide da, Euskaltzaindiak duela bi urte hautagai aurkeztu eta Legebiltzarrak onetsia. Kontseilu horretan Hizkuntza-batzordea sortu zen, Knörr jauna buru zuela. Honek zenbait izen proposatu zituen, aholkularitza-lana egin zezaten, baina aurretik, Euskaltzaindiak onartzea nahi izan zuen eta Akademiak, 2000ko maiatzaren 26an Iturenen egindako batzarrean (ikus *Euskera* 45:3, 2000, 969), ontzat eman zituen izenok (Miren Azkarate, Lourdes Oñederra, Patxi Salaberri Zaratiegi eta Juan Luis Goikoetxea). Kintana jaunak ere bere burua proposatu zuen eta bost izenak onartu zituen Euskaltzaindiak. Hilabete batzuen ondoren Miren Azkarate andrea EITBko euskararen arduradun izendatua izan zenez gero, Joxerra Garziaren izena erantsi zuela dio Knörr jaunak eta EITBko Hizkuntza-batzorde horretan onartu zerrendatxo hori. EITBko Zuzendaritzaren aldetik, ordea, aholkularitza horri ezetza eman zitzaiola adierazten du H. Knörrek.

Hori dela eta, zenbait asteren buruan H. Knörrek dimisioa aurkeztu omen zuen EITBko Kontseiluan Hizkuntza-batzordeburu kargutik. Kontseiluak, berriz, maiatzaren 29an egindako batzarrean, izkribu bat onartu omen zuen. Izkribuaren muina honako hau: 1. Dimisio hori bertan behera utz zezala eskatzea, eta 2. bost lagun horien laguntza EITBko Zuzendaritzak azter zezan onartzea.

Hala ere, hilabete iragan ondoren, EITBko Zuzendaritzatik ez Azkarate andrea-rengandik inolako berririk ez duela izan adierazten du Knörr jaunak.

P. Goenagak hartu du hitza ondoren. Haren ustez, EITB erakunde burujabea da eta ez zuen nahitaz Euskaltzaindiak onetsitako aholkulari haiek zertan aintzat hartu.

Knörr jaunak erantzun dio euskara dela EITBko bi hizkuntzetako bat eta ezin dio la muzin egin hain garrantzitsua den gaiari. Hain zuzen ere, maiz agertu dutela euskaltzainek beren kezka EITBko euskarari buruz.

Azkenik, Miren Azkaratek EITBn burutzen duen lana azaldu du. Gaineratu du ez dela sartzan EITBko Zuzendaritzan hartzen diren erabakietan.

Zazpitan amaitu da bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga